

Berrigara



Aratu stietan
itxo barik gero, e!

ATETXEA

1.000 PTA

AFETEGIA



**JAM
ARETOA**

GO-JAM

MARTXOA

- 10: **L7 + Pussycats**. Emakumeek egindako rocka
- 11: **Fran T**. Hip-hoparari erregea + **DJ Zeta**
- 17: **S.A. + Eraso!**
- 18: **Martires del compas**

- 9: **Rogelio Botanz**
- 12: **Javier Sun + Los perseguidos**

ZEINTZUK DIRA GURE KOLOREAK?



Zeuk erabaki.





Berdintasunaren balioa

Jesus Kalboetxeaga / Kazetaria

Gizartea feminizatuz gero lehiakortasun gutxiago izango genukeela diote. Sinesgarria da, bai, baina berdintasunaren bidetik nola goazen ikusita kostatzen zait hori neureganatzea. Asko ikasi eta gure barnean aldatuta handia eman beharra izango du horretara iristeko. Emakumearen Nazioarteko beste egun bat datorrela eta, eskubide berdintasunaren tesia entzungo dugu berriz ere, baina uste dut horren inguruan zabalduko diren arazoibideetako asko ez direla berez emakumezkoenak, baizik eta gizakienak.

Emakumearen irudi publikoa aldatu egin da mende honen azken hamarkadan, beharbada, lorpen sozial eta kultural batzuk izan dira, eta ahalegin handiak eskatuta bada ere, badirudi, geureganatzen ari garela. Hori garbi ikusten da hainbesteko eragina duten publizitatean edota komunikabideetan. Dena den, bultzatzen den irudi horren hainbat irakurketa egin daitezke. Gaur egun ere, ezin da ukatu emakumea etxeko lanetara lotua edo gizonetzkoen nahien arabera moldatua erakusten dela. Bestaldetik, lan munduan bere bidea urratu duen emakumea edertasunaren ikuspuntu batetik erakusten da eta modernitatearen era-

kusgarritzat hartzen da. Hala ere, benetazko emakumeak, gure ingurukoak, ez dauka horrekin zerikusi handirik.

Bai, emakumeak, publizitate kanpainetan, nahiko genduzkoen berdintasun kontzeptuaren irudi okerra jasotzen du. Marketing-ak eta publizitateak gizonetzkoen munduko balorerik atzerakoenak ateratzen ditu eta emakumeari erantzen dizkio, berdintasuna aitortzekotan edo. Horrela, emakumea ez da bakarrik sentitzen erakargarri gisa erabilitako objektutzat, orain gizonetzkoa ere objektuarekin konparatzen baita. Emakumezkoendako mezu baten barnean doan etxea garbitzeko edozein produktu ere konpara daiteke gizonetzko gazte eta eskultural bati eman dakiokkeen erabilerarekin. Adibide

“Ezin da ukatu gaur egun ere, emakumea etxeko lanetara lotua edo gizonetzkoen nahien arabera moldatua erakusten dela publizitatean”

bat besterik ez da, txikia eta eskasa, baina, zoritxarrez, irensten ari garen baloreak zeintzuk diren erakusten digu.

Kontsumismo asezinaren beste erakusgarri bat, helburu jakin batzuk dituen osotasun baten barrukoa. Telebistako iragarki bat ekartzen dit gogora: “Todo se compra, es cuestión de precio”. Ohar sunsigarria, eta gainera gizakiari etikakutsu guztia kentzen dizkieten irudiekin lagunduta. Eta okerrenea da kontrakoa adieraztea gustatzen bazaigu ere, askotan pentsatzen dudala aukerarik gabe lagatzen gaituztela. Lagun on batek dioen moduan “eta nik ere hala diot”, goian daudenei eskatzekotan behean gaude non artean praktikatu behar dugu, eta hor uste dut gatazka irabazi egiten digutela. Mundu honetako eskolan erakusten digute beste denak gure aurkari eta lehiakide bezala ikusten, eta gure akatsak aitortu nahi ez baditugu ere, lagunkidetasuna, berdintasuna, errespetoa edota partaidetza bezalako baloreak ezezean geratzen zaizkigu gure parean dagoena, gertu daukagun gizon edo emakume hori une txar baten dagoenean. Jakina, une horietan laguntzeak esfortzu bat eskatzen du. Egia al da, beraz, denak duela bere prezioa?<

barruan



Marisa Zubillaga

Psikologo klinikoa

“Zein sexutakoak diren laupabost urterekin hasten dira haurrak konturatzen”

8.



Nora Madariaga

Eskubaloit taldeko atezaina

“Gol gutxi jasotzeko sekretu bakarra talde-lana izan da: oso ondo defenditzen dugu”

23.



Miren Azkarate

Udaleko langilea

“Lehen, martitzenian giro hobia egoten zan, jende gehixago mozorrotzen zan”

29.

Farmaziak

Eguakitza 3:
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 4:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 5:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 6:
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 7:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 8:
CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 9:
PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 5: Mizpildi.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 25
14-19-22-35-42-44 (osag.36/itz.5)

Astelehena 28

9-16-18-24-27-40 (osag.17/itz.5)

Martitzena 29

6-15-16-27-43-44 (osag.36/itz.5)

Eguaztena 1

11-15-29-44-45-47 (osag.25/itz.5)

PRIMITIVA

Zapatua 26
4-8-18-19-21-36 (osag.15/itz.6)

Domeka 27 Saritzarra
20-29-30-34-44-45 (osag.37/itz.8)

ONCE

Eguakitza 25: 71.041 (114 seriea)

Domeka 27: 49.945 (056 seriea)

Astelehena 28: 40.708

Martitzena 29: 23.155

Eguaztena 1: 30.548

BESTE BATZUK

M. Altuna ikasbidaia,
bizikleta: 524


hau be badou?

Hipertentsioa

Estatu Batuetako hipertentsioari buruzko aldizkariak argitaratu duenez, egunero 45 minututan kirola modu lasaian eginez gero presio arteriala asko jaisten da. Jakina denez, hipertentsioa bihotzeko arazoaren sorburu nagusienetakoa da. Kontuan hartzeko sendabidea! *Elhuyar*


Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatua 4

Lainotsu edo oso lainotsu. Euri pixka bat. Behelainoa ere izango dugu. Tenperaturak beherantz egingo du. Iparraldeko haize leuna.



Domeka 5

Laino gutxi orohar. Behelainoak jarraitu egingo du. Temperatura ere berdintsu baina haizeak ekialdetik joko du leun.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: martxoak 6



Ilgora: martxoak 13




Ilbete: martxoak 20




Ilbehera: martxoak 28

Eguzkia

Domeka, martxoak 5



Sortu: 07:44



Gorde: 19:13

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 24	11	7,5	8,5	18	8	-
Eguakitza 25	12,5	9	-	20	4	-
Zapatua 26	18	7	-	24	7	-
Domeka 27	18,5	10	-	24	2	-
Astelehena 28	11,5	9	-	16	3	-
Martitzena 29	7	5	-	16	3	2,8
Eguaztena 1	5	5	23,7	12	4	22,3


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Eskillaraso, eskillarasua

Kantu ozena eta zakarra duen txori mota.

- Piñui baztarretan ibiltzen die eskillarasuak.



JOSU OKINA

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

jaiotakoak

BERGARA

Leire Manso Elkoroberezibar
Otsailak 21

Belen Martinez Rodriguez
Otsailak 21

Aitor Alberdi Etxeberria
Otsailak 23

Maddi Iñarra Muñoz
Otsailak 24

hildakoak

BERGARA

Lanberto Larrañaga Azkoitia
Otsailak 25, 90 urte

zorion agurrak




Ander Etxezarreta
7an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Elkororibe
5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Oihana Garai
7an 12 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Imanol Berroia
5ean 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Tatiana Alonso
3an 26 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maite Etxaniz
4an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Josu Zezeaga
3an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Matxalen



Izar Morillas
8an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Isabel Gurrutzaga
7an 84 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta Nerea.



Pedro Ramos
9an 40 urte.
Urte askotarako!
Fran eta Irene.



Iñaki Lasa
5ean 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak; batez ere, neskak.



Aitor Elizburu
8an 5 urte.
Urte askotarako!
Ander eta Miren.



Ana Garcia
5ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mikel.



Mikel Garcia
3an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Joseba Duran
3an 24 urte.
Urte askotarako!
Nerea.



Miren Manuel
3an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Esther Iñarra
3an 18 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Enrike Anton
3an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maddi Laskurain
4an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta San Martinekoak.



Iraia Olivas
5ean 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ibane Baseta
8an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ayala Sasieta
3an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneko Mujika
3an 12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jon Elortza
4an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.


URTEURRENA

Teodoro Agirre Ondarra

“Kanpaia”

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 5,
goizeko 11:30etan, Osintxuko elizan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*




ESKER ONA

Isabel Larrañaga Gabilondo

Bergaran hil zen
2000ko otsailaren 23an,
86 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei
eskerrik asko sendikoen izenean.*



*Hurrengo alean,
martxoaren 10a eta 16a
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

mezak	
<p>Santa Marina Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak: 19:00. Lanegunak: 19:30.</p> <p>San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.</p> <p>Osintxu Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.</p> <p>Elosu Domekak: 10:00.</p> <p>Ubera Domekak: 10:30.</p> <p>San Juan Domekak: 11:00.</p> <p>Basalgo Domekak: 13:00.</p> <p>San Prudentzio Domekak: 10:30.</p>	<p>Labegaraieta Domekak: 11:00.</p> <p>San Lorenzo Zapatuak: 20:00.</p> <p>Angiozar Domekak: 11:00. Eguakitza: 19:00.</p> <p>Monja Zaharrak Domekak: 19:30. Zapatuak eta lanegunak: 20:00.</p> <p>Mizpirualde Domekak: 11:45. Zapatuak eta lanegunak: 11:45.</p> <p>Antzuola Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.</p> <p>Uzarraga Domeka: 10:00.</p>
URTE-MEZAK	
Santa Marina Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.	
San Pedro Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.	

ANTZERKIA

- ▶ **"A viaxe de Lola"**, Alala taldearekin, domekan, hilak 5, 19:30etan Arrasateko Amaian.
- ▶ **Las Fellini** taldearen eskutik, "Cabaret" kafe antzerkia martitzenean, hilak 7, 23:00etan Elorrioko Ateneoan.

BERTSOAK

- ▶ **Oihane Enbeita, Estitxu Arozana, Estitxu Fernandez, Amaia Agirre eta Iratxe Ibarra** gaur, eguakitzan, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan. Gai jartzailea **Josu Goikoetxea** izango da.

MUSIKA

- ▶ **Mal de ojo** taldea gaur, eguakitzan, gauerdian Elgetako Gaztetxean.
- ▶ **Jam**. Datorren eguakitzean, hilak 10, **L7 eta Pussycats** taldeen emanaldia, 22:00etan.
- ▶ **Requiem** talde bergararra datorren eguakitzean, hilak 10, 22:00etan Gasteizko Gaztetxean.

ERAKUSKETA

- ▶ **"Natura iruditan"** erakusketa Kultur Etxean, martxoaren 6tik 12ra.
- ▶ **"Bergarako rocka: bi hamarkada eta arazo bera"**

JAIAK

Aratusteak

Noiz: zapatutik martitzenera bitartean

Bihar, zapatua, hasiera emango zaio aurtengo Aratusteetako egitarauari. Arratsaldeko 5etan, Detraka taldearekin, haur jolasak izango dira San Martin Plazan eta 18:30etan Txatunga Benbe taldearekin kalejira. Ordubete beranduago, Xamatx dantz taldeak kalejira eta dantzak eskainiko ditu eta 8etan, berriz ere Txatunga Benbe taldekoen txanda izango da. Gaueko 9:30etarako suzko zezena iragarri da Plazan eta gaueko 11etan, toki berean, Iraile-rako 6 taldearekin dantzaldia izango da.

Domekan, Udala Musika Bandak eta Orkestak Raul Luqueren aldeko kontzertua eskainiko dute eguerdiko 12:30etan Udala Pilotalekuan. Programa honako hau izango da; "Marin" (M.Glez. Bastida), "El caserio" (Guridi), "Bailando con lobos" (Barry), "La verbena de la paloma" (Breton) eta "Frèñesi" (Dominguez). Domeka arratsaldean, Takolo,

Pirritx eta Porrotx pailazoen "Plisti plasta" izenburuko ikuskizuna eskainiko dute 6etan Frontoian. Basque Country taldeak, berriz, *country* estiloko abestiak joko ditu Plazan 18:30etan hasita.

Bukatzeko, martitzenean, Musika Eskolako txarangaren kalejira egingo da 16:00etan, 5etan buruhandiak eta erraldoiak aterako dira, txistulari, dultzainero eta hankaluzeen laguntzaz, eta Drindots taldearen eskutik, dantzaldia izango da 18:30etan eta 22:30etan.. Bien bitartean, 20:30etan, sardinaren entierroa egingo da Plazan.

Azken urteotan egin ohi duen bezala, Bedelkar elkarteak 25.000 pezetako afari merienda emango dio Aratusteetan kalea gehien animatzen duen taldeari.



Zapatuan eta martitzenean mozorrotzeko ordua izango da.

argazki erakusketa zabalik izango da Pol-Poleko aretoan domekara arte.

LEHIAKETAK

- ▶ **Gazte Informazio Gunea** iragartzeko kartel lehiaketa.

Lehiaketan, Bergaran ikasi, bizi edo lanean ari diren 15 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Lanak aurkezteko epea martxoaren 11n bukatuko da. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Argibide gehiago 943 77 91 57 telefonon.

- ▶ **Gerriko Ikerlan Sariketa**. Ikerlanaren gaia Goierri dago-kion edozein zientzi alorrekoa izan daiteke eta lanak (euskaraz) jasotzeko epea martxoaren 17an bukatuko da. Irabazleak 500.000 pezeta eta bigarrenak 300.000 pezeta eskuratuko dituzte. 943 16 02 82.

ARRANO

Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

ARTISAUTZARO IZOLKIA

GOXO-TOKI

Iraila 3. Tf. 943 76 12 95
 Martxoaren 24. Tf. 943 76 23 37
 BERGARA

IKASTAROAK

► **Moises Aspiazu** dantza taldearen eskutik, helduei zuzendutako arin-arin eta fandango ikastaroak zapatu goizetan. 943 76 15 40.

► **Euskal dantzen eta Karibeko dantzen ikastaroak**, Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak antolatuta. 943 77 00 65.

DEIAK

► **Iñigo Martinez** "Memín"-en omenezko mendi irteera egingo da bihar, zapatua, Irukeruztetara. Irteera goizeko 9etan Goiko Plazatik.

► **EAJ. Elena Etxegoien, Josu Jon Imaz eta Jose Juan Txabarri**ekin ekitaldi politikoa astelehenean, hilak 6, 20:00etan Miguel Altuna zaharreko aretoan. Eguaztenean, hilak 8, **Xabier Arzalluz, Joseba Egibar eta Txabarri** hizlari izango dira 20:00etan Arrasateko Amaia antzokian. Bergarako EAJk bere alderdikideei aipatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatzen die.

► **San Joxepe** elkarteak antolatutako hitzaldia martitzenean, hilak 8, 19:30etan Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan: "Economía, sociedad y cultura en Bergara durante el Antiguo Regimen". Hizlaria: **Juan Madariaga** UNEDeko irakaslea.

► **Gose greban** diren euskal presoan aldeko enkarteladak egunero, goizez 12:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 18:30etatik 19:30etara.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, martxoak 8, 18:30etan.

► **EH. "Abstentzioa"** lemapean, manifestazioa datorren eguakitzean, hilak 10, 19:30etan San Martin Plazan. Ondoren **herri afaria** izango da Artatsen. Txartelak Arrano tabernan eros daitezke.

► **Deba Garaiko euskal presoak Euskal Herriratzeko** kalejira errebindikatiboa domekan, hilak 5, 18:00etan Aretxabaletan.

OHARRAK

► **Udal igerilekuak** itxita izango dira martxoaren 6tik 12ra bitartean, Osakidetzak agindutako garbiketa egiteko.

KINTADAK

► **1975**ean jaiotakoen bazkaria egingo da Zabala jatetxean martxoaren 11n, zapatua. Izen-ematea egiteko 3.000 pezeta sartu behar dira Kutxako 0122922040 kontu zenbakian.

► **1936**an jaiotakoen eguna maiatzaren 6an ospatzekoa zen aurten, baina datorren urtera arte atzeratzea erabaki da, era horretan, 65. urteurrenarekin bat egiteko.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Todo sobre mi madre

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

El coleccionista de huesos

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Hoy empieza todo

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Juana de Arco

Eguakitza: 22:00.

Los teleñecos en el espacio

Zapatua eta domeka: 17:00.

Segunda piel

Zapatua: 19:30, 22:00.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

High Art

Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Tres reyes

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

La playa

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ONATI. Santana

Rosetta

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Segunda piel

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

Agnus (euskaraz)

Domeka: 17:00.

El pozo

Eguena, zine-kluba: 20:00.

TODO SOBRE MI MADRE

Zuzendaria: Pedro Almodovar.

Aktoreak: Cecilia Roth, Marisa Paredes, Penelope Cruz. **≥18 urte** Goya sarietan nagusitu eta Urrezko Globoak eskuratu ondoren, atzerritar filme onenaren Oscarra irabazteko aukera du Almodovarek orain. Bere azken filme honetan, istripu batean bere semea galdu duen emakume baten istorioa kontatzen digu; bere senarra izandakoaren bila joatean, us tekabe bat baino gehiago gertatuko zaio.

EL COLECCIONISTA...

Zuzendaria: Phillip Noyce.

Aktoreak: Denzel Washington, Angelica Jolie. **≥18 urte** Manhattan auzoan hiltzaile batek mezuak lagatzen ditu hilketara egiten duen bakoitzean eta pista horiek interpretatzea ez zaio batere erreza gertatzen poliziari. *Lincoln Rhyme* (Denzel Washington) detektibeak ikerketari ekingo dio *Donaghy* (Angelica Jolie) ajentearen laguntzaz....

HOY EMPIEZA TODO

Zuzendaria: Bertrand Tavernier.

Aktoreak: Philippe Torreton, Maria Pitarresi, Nadia Kaci. **≥18 urte** Donostiako Zine Jaialdian harrera ezin hobea jaso zuen eta Berlinen ere Nazioarteko Kritikaren saria jaso zuen Tavernieren azken lanak. Irakasle batek hainbat zailtasuni egin beharko dio aurre ume eskola batean, hezkuntza sistemari buruzko erreflexioa planteatzen zaigularik.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Marisa Mariaren Lagundia Ikastolako psikologo klinikoa da. Hurrekin harreman zuzena du bere lanean, eta txikiak direnean neska eta mutilen ezberdintasunez hitzeging dugu.

G. Zein dira umeengan sexua dela eta ematen diren ezberdintasunak?

E. 0 eta 3 urte bitarteko umeetan, ez da sexu mailan ezberdintasun nabarmenik. Erabiltzen duten aktibitatea sensoriomotorea da, eta epe honetan, motrizitatea da garrantzitsuena.

Behin 4-5 urte dituztenean, konturatzen hasten dira neska edo mutila diren, hau da, zein sexu duten eta aurkikuntza horren lekuko izango dira aurrerantzean egingo dituzten jolasak. Garai honetan, euren jolasetan, aita, ama, medikua... dira. Mutilen joera Superman, Tarzan, horrelako pertsonaiak hartzekoa izango da, eta neskak, berriz, printzesak, amak... izango dira, batez ere.

Beraz, adin honetan hasten dira dagoeneko mutil eta neska arteko rol bereizketak ematen, adin honetan ere euren buruak neska eta mutil bezala ikusten hasten direlako.


G. Zer eragin dute erosten zaizkien jostailuek egiten dituzten jolasetan?

E. Nahiz eta etxean neurri batean eta baita eskolan ere sexu bientzako jolasak egon, mutikoen kotxe, pistola eta honelako jolasetarako joera dute, eta neskek panpin, sukaldeko tresna eta abarrerako.

Mutikoen eta neskek panpinekin jolasten dutenean ere, jolasaren helburua ezberdina da, mutikoen panpina gauzak egiteko erabiltzen dute eta nesken-

MARISA ZUBILLAGA
Psikologo klinikoa

“Zein sexutakoak diren 4-5 urterekin hasten dira umeak konturatzen”



Marisa Zubillagak hurrekin egiten du lan eskolan.

gan, jantzi, zaindu, elikatu... gehiago agertzen dira honelako ekintzak. Nolanahi ere, etorkizuneko beraien asmetan neskengan espektatiba zabalagoak antzeman ginitzake, hau da, euren irtenbide profesional eta pertsonalak ugariagoak eta desberdina izango dira lehen zirenekin alderatuz. Hala ere, neskatila askok galdetzen dute

“Nesken kasuan, ezetz esaten jakitea oso garrantzitsua da; mutilek, berriz, ulertu egin behar dute ezezko horren esanahia”

oraingik “hau neskak egin genezake?”.

G. Harremanetan noiz nabaritzen dira neska-mutikoen arteko berezitasunak?

E. 6 eta 10 urte bitartean, sexuen arteko berezitasun nabariagoa ematen da. Momentu honetan mutikoen mutikoen erlazioak erlazionatzen dira eta neskak neskekin; euren sexukoekin identifikatzeko beharra dutelako da. Horrela, koadrilak hasten dira. Ikuspegi honetatik ulertu genezake neska eta mutilen artean ematen diren zenbait jokabide; aldamentean eseri nahi eza, eta esaten dutenean “neskak tontoak dira”, eta neskek diotenean “mutilak asto batzuk dira”. Beraien sexu identifikazioa aurrera eramateko muturreko jokabideak hartzen dituzte.

G. Eta nerabezaroan?

E. Adin honetan, haurtzaroko dependentziatik ateratzeko lagun taldearekin identifikatzen dira. Lagun taldeak normalean mixtoak izaten dira eta lehenengo bikote harremanak sortzen dira.

G. Zuk zer esango zenieke neska-mutilei?

E. Neskei, ez dutela inoiz inorengatik onartu behar nahi ez duten zerbait egitea eta jokabide horien garrandik defendatzeko eskubide osoa dutela. Eta mutilei errespetuzko jarrera zor dietela neskei eta beraien harremanetan indarra erabiltzeko eskubiderik ez dutela. Ezetz esaten jakitea oso garrantzitsua da, baita ezezko horren esanahia ulertzea ere.

G. Zer iritzi duzu berdintasunaren inguruan?

E. Dударik gabe eskubide aldetik berdintasun bat egon behar da, baina honek ez du esan nahi guztiok berdinak garenik, biologikoki ezberdinak garen neurrian.

2.845 milioi pezetako aurrekontua izango du aurten Udalak

Finantza zama 2,8 puntu gutxitzea lortu ondoren, %14,1ean geratzen da

Aurtengo udal aurrekontua onartu zuen Udalbatzak astelehenean. Udalak 2.845 milioi pezetako aurrekontua izango du. Kopuru honi, Udal Euskaltegiko aurrekontua, 74 milioi, Mizpirualde zaharren egoitzakoa, 365 milioi, eta Bergarako bihargintza, S.A. ren 12 milioi gehitu behar zaizkio. Aurrekontuak EAJ-EA eta EHren aldeko botoak jaso zituen.

Iazkoarekin alderatuz, aurtengo udal aurrekontuak 240 milioitan egin du gora, %9,2. Bestalde, inbertsioetara bideratuko den kopurua, 795 milioi, %8,8 igo da; 1999. urtean baino 64 milioi pezeta inguru gehiago izango ditu Udalak inbertitzeko.

Horrez gain, %14,1 puntuko finantza zamari egin beharko dio aurre Udalak. Iaz %16,9 puntuko finantza zamari egin behar izan zion aurre Udalak. Aurten, iazko

zamatik 2,8 puntu gutxitzea lortu du.

Gastuei dagokienez, gastu korronteek (pertsonal gastuak, erosketa arruntak, interesak eta transferentzia arruntak) hartzen dute zatirik handiena, 1.757 milioi.

MIZPIRUALDE EGOITZA

Zaharren egoitzarako, 365 milioi pezeta aurreikusi dira. 1999. urteko aurrekontuarekin alderatuz, %36,4 igo da Mizpirualdeko gastua. Honek badu bere arrazoiak. Izan ere, Karidadeko monjek utzi egin dute egoitza eta hauek egiten zuten lana ordezteko, kanpo kontratazioak egin behar izan ditu Udalak. Monjak joateak, %36,4ko igoera honetan %32 suposatu du.

551 MILA PTA EUDIMARI

EH eta EA alderdien aldeko botoekin eta EAJ ren absentsioarekin, emendakin partziala egin zitzaion aurrekontuari. Emendakin ho-



Mizpirualdera 365 milioi pezeta zuzendu dira, iaz baino 104 gehiago.

nen arabera, Eudimari (Euskal Udal Intsumisoen Mankomunitatea) aurrekontuan aurrikusita ez zegoen 551.000 pezeta ematea onartu zen.

INBERTSIOAK

Inbertsioetarako 795 milioetatik zatirik handiena, 2. sektoreko fase berriak, lur sailen erosketak eta Santa Marina plazako berritze lanei zuzenduko da.

2000rako UDAL AURREKONTUA

UDAL AURREKONTU OSOA:

3.297.000.000

Udala:

2.845.407.000

Mizpirualde egoitza:

365.117.887

Udal euskaltegia:

74.743.000

Bergarako

bihargintza, S.A.:

12.604.800

AURREKONTUA BATZORDEKA

(milioi pezetatan)

Auzoak	211,373
Ingurugiroa	36,901
Zerbitzu orokorrak	703,521
Informatika	25,750
Kultura	179,067
Kirolak	114,912
Hirigintza	471,670
Hezkuntza	82,974
Gizarte Ongizatea	294,558
Pertsonala	654,730
Euskara	69,400

Euskara, %2,44

Hezkuntza, %2,92

Kirolak, %4,04

Kultura, %6,29

Auzoak, %7,43

G. Ongizatea, %10,35

Hirigintza, %16,58

Ingurugiroa, %1,30

Zerbitzu orokorrak, %24,73

Pertsonala, %23,01

INBERTSIO AIPAGARRIENAK

(milioi pezetatan)

2. sektoreko fase berria	174,0
Santa Marina plaza	40,0
Etxebizitzendako lur sailen erosketa	151,0
Kiroldegia	18,0
Eskolak	14,0
Ermita konponketa	12,5
Proiektuen erredakzioa	60,0
Beste batzuk	325,5

GUZTIRA **795,0**

Kontseiluak Plan Estrategikoa azalduko du martxoaren 13an

Bilera informatiboa eskainiko du Euskararen Kontseiluak martxoaren 13an Bergaran. Bilera honen helburua, Bai Euskarari Akordioaren inguruko Plan Estrategikoa ezagutzera ematea da: Kontseilutik etorritako hizlariak Planaren berri emango diete bertarutakoei, eta segidan hauek eduki ditzaketzen zalantza eta galderak argitu eta erantzuteko beta egongo da. Lehen atal hau amaitu ondoren, euskalgintzako kide direnak soilik, Kontseiluko ordezkariekin jarraitu eta informazioa zabaltzeko eta zehazteko aukera izango dute.

Plan Estrategikoan 23 sektore desberdinetan bildutako 687 eragile ari dira parte hartzen. Plana dagoneko diseinatuta dago eta gizarte eragileak hasi dira jadanik pentsatzen eta aztertzen zein konpromiso hartuko duten euskararen alde.

Bilera Migel Altuna ikastetxean izango da arratsaldeko 19:00etan. Azalpenak, Jone Dorronsorok, Kontsei-



Bai Euskarari kanpainaren barruan, 1998an, hainbat ekitaldi egin zen herrian.

luko arduradunetako batek, emango ditu.

Bilera informatibo hauek herriz herri egingo dira. Donostia, Lasarte, Leizta, Bilbo eta Ondarrun esa-

terako egin dira. Bergararekin batera, Arrasaten ere egingo da eta ondorengo egunetan Zarautz, Beasain, Iruñea, Doneztebe eta beste hainbatean.

Gazteen droga kontsumoa aztergai

Drogomenpekotasuna aztertzeko ikerketa egitea onartu du Udaltzazak. Ikerketa Udaleko Ongizate Sailaren ekimena da, eta lehiaketa bidez esleituko da.

Ongizate Sailak drogaren kontsumoaren inguruko datu berriak izan nahi ditu. Izan ere, 1992. urtean antzerako ikerketa bat egin zen, baina orain zortzi urteko ikerketa honek biztanleen esparru zabalagoa hartzen zuen. Hori dela eta, lehiaketara aterako den ikerketa berri honek 12 eta 18 urte bitarteko neska-mutikoak baino ez ditu oinarri izango. Ikerketa gauzatzeko urte amaiera arteko denbora izango da.

Ikerketa hainbat puntutan oinarrituko da: droga kontsumoak izan duen areagotzean, familian, eskolan, lagun artean eta aisialdian ematen diren arrisku egoeretan eta abar. Puntu oso garrantzitsuak drogomenpekotasun azterketa bat egiteko orduan.

Barianteko zati bat itxita sei hilabeterako



Ondartza eta Zubiberri zubiak lotzen dituen barianteko zatia itxita egongo da datorren eguakitzetik aurrera. Oraindik ez da erabaki aldika itxiko den edo etenaldirik gabe sei hilabetez. Arrazoa da, Eibar-Gasteiz autopista egiteko, Ondartzako harrobia eta honen inguruak lehertu egingo dituztela. Amillagan badaude dagoneko desbideraketaz ohartzeko seinaleak. Arrasate zein Eibarrera joateko, industrialdea igaro beharko da Amillaga kalea zeharkatuz.

Gallastegi ez da errektore izango

Mari Karmen Gallastegi Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun bergararra ez da izango EHUko errektore berria. Joan zen martitzenean, egindako lehenengo hautaketan, Gallastegik 64 klaustrokidereen botoak jaso zituen beste bi hautagaiek baino gutxiago.

Bergarako souvenirrak turistendako

Ideia Bedelkarrek bultzatu du. Kamisetak, postalak eta keramika salgai

Bergarak souvenirrak izango ditu datorren udatik aurrera. Souvenirrak kalera-tzeko ideia Bedelkar elkar-tearena da, eta oraindik ere zein denda, taberna edota jatetxetan salduko diren zehaztu gabe dagoen arren, oso argi dute Bedelkarreko-ek nolakoak izango diren souvenirrok.

Hiru souvenir jarriko dira salgai: kamisetak, postalak eta keramika. Souvenirrak zer nolakoak izan erabakitzeke orduan, Bedelkarrek garbi izan du herrian dauden elementu identifika-garriek izan behar dutela souvenirren oinarri. Herria hurbiltzen diren turistei tostoi eta erellenoez gain, zerbait gehiago eskaintzea du helburu.

ARRESE ETXeko BALKOIA

Kamisetek dagokionez, herriaren izena eta Arrese

etxeko balkoi famatuaren irudia eramango dute.

Postalak, hamabiren bat kaleratuko dira; guztiak Benito Cantero argazkilariak ateratako herriko zonalde ezberdinetako argazkiak, egunez zein gauez.

Keramikari dagokionez, Gasteizko keramikagile bati enkargatu diote lana. Iru-diak txikiak izango dira eta herriaren izena eramateaz gain, leienda bat ere izango dute idatzita. Ez dago argi oraindik pieza hauek zein motibo izango duten, dena den irudi txikiak izango dira, eroslearentzat oso garestiak izan ez daitezten.

Souvenirrak datorren astean kaleratuko ditu Bedelkarrek ziurrenik. Hala eta guztiz ere, ez dira udara arte salgai jarriko eta salmenta prezioa ere zehaztu gabe dago; nahiz eta garestiak ez diren izango.



Kamisetek Arrese etxeko balkoi famatuaren irudia eramango dute.

Chernobilgo umeeek laugarren uda Bergaran

Chernobilen lagunak elkarteak, Chernobileko ez-behar nuklearreko irradiazioak jotako ume ukrainiarrei harrera ematea helburu duen elkarteak, dagoeneko herriko bi familien eskaintza jaso du uztaile eta abuztuan zehar ume ukrainiarrek etxean jasotzeko.

Azken lau udatan izan dira Ukrainiako umeeak Bergaran eta aurten hiru etorriko dira, bi neska eta iazko udan izandako mutiko bat.

Honela, bi neskatoak herriko familia baten etxean igaroko dituzte aipatu bi hilabeteak eta mutikoari herriko beste familia batek



Ilya Maslov, Aitzol eta Hodeiren artean, iazko udako irudian.

emango dio aterpea.

1999. urtean Udalen, enpresen eta partikularren dirulaguntzari esker, 26 neska-mutikok igaro zituzten

uztaile eta abuztuko hilabeteak Gipuzkoa osoko hainbat familian.

Honekin guztiarekin eta ume hauek euren ingurune-

tik irten eta negu ukrainiarri aurre egiteko defentsak berreskuratu ahal izateko, Chernobilen lagunak elkarteak, herritarren laguntza eskatzen du. Helburu honetik elkartasuna uztaile eta abuztuan zehar umeren bat hartuta edo ondoren zehazten diren kontuetan dirua sartuta gauza daiteke: KUTXAKO 2101 0059 43 001090132.0 zenbakian edo EUSKADIKO KUTXAKO 006.0.01327.1 zenbakian. Bestalde, umeren bat hartzeko interesa dutenak Carmen Ruiz Ortogarekin jarri beharko dira harremanetan 943 83 04 00 telefonoan.

Berrigara

400 zenbakia.
2000ko martxoaren 3a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Tosten zuzenketak: Alex Labaien, Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elxepuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lerge gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

UDALAK GOGOTAN DITU ELBARRITU ETA EZINDUAK

Bergararik kanpora bizidena Marta Moral kazetariak elbarrituek jasaten dituzten traba arkitektonikoak izan zituen aztergai aldizkari honetako 397. zenbakian. Nonbait Marta Moral Bergarara etorri zen azkenengo batean konturatu zen "inor ez dela arduratu espaloietako koska txikitzeaz" eta agintariei kontuak hartzeari ekin dio.

Marta Moralek Bergarako udalgintza bertatik bertara jarraituko balu jakingo luke 1999ko azken lau hilabeteetan bakarrik 2.000.000 pezeta inbertitu zirela koskak txikitzen ezezik baita beste hainbat eskabideri erantzuten ere. Eta, onartu berri diren aurrekontuetan 3.500.000 pezetako kontu bat dagoela era horretako beharizan eta premietarako. Kontu irekia gainera,

behar izanez gero diru gehiago jarri ahal izateko, azken bolada honetan urtero-urtero egin izan den bezala.

Begarako elbarrituak eta ezinduak ez daude ahaztuta. Batetik Udalak berak gogotan dituelako eta, bestetik, elbarrituok eta euren senideek Udalarekin harreman sendo eta iraunkorrak dituztelako, eta beti ere ezer egin aurretik euren eskakizunak kontuan hartzen direlako.


Udalak badaki zeintzuk diren bere betekizunak eta zeintzuk diren indarrean dauden legeak. Inork esan beharrik gabe ere Udalak badaki elbarrituok euren zergak ordaintzen dituztela eta euren eskubideak dituztela. Baina, batere zergarik ordainduko ez balute ere, udal honek ez lieke sekula eskubiderik txikiena ere ukatuko.

Marta Moral kazetariak galdera benetan sakona egin du galdetzen duenean ea nork kontrolatzen ote dituen obra publikoak, eta nork eskatu beharko ote dizkion kontuak Udalari. Baina, aldi berean, zilegi zaigu galdetzea guri ere nork kontrolatzen ote dituen kazetari desinformatuak, eta kritikatan hasi aurretik zergatik kazetari batek ez dion lehenago Udalari galdetzen informazio zuzena edukitzea.

Nire ardurapean dagoen lan-arlotik behintzat, ez diogu sekula Marta Morali nahi duen besteko informaziorik ukatuko. Baina ez du balio noizik behin herrira agertu eta, bide batez, edozertaz inork baino gehiago jakin nahi izatea. Halakoetan, normala zera da: hanka sartzea, koskarik txikienean gainera.

Kontxi Irizar
Gizarte Ongizate
Batzordeburua

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

Zer pentsatzen jatzu Debagoieneko telebisiño bateratua sortzeko asmua?



Fernando Ugarte

Oso ondo. Inguruan gerta-zen dana jasotzia aproposa pentsatzen jat. Herrixetako berrixak batuta emotia ondo egongo litzake.



Soledad Saez

Ondo. Oin be, "Telenorte" ikusten dogu, baiña bailarako telebista baten gertuagoko berrixak entzungo dittugu.



Maria Cid

Ondo. Horrela inguruan garen herrixek batak bestian berri izango giñukielako. Batez be honegai-ttik pentsatzen jat ondo.



German Balanzategi

Oso ondo. Arrasatek badauka. Gaiñera inguruko herrixetako berrixekin be enterauko giñake.



Maria Luisa Larrea

Ondo pentsatzen jat. Batez be gure gauzak izango dielako bertan ikusiko dienak eta baita inguruko herrixetakuak be.



Julian Aiastui

Ondo dago, politta izango litzake, kontuan izanda batez be gure ezaugarrixak eta izateko modua daukagula Debagoienian.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

MOTORREN ZARATEKIN BUELTAKA

Jose Perezek mezu bat utzi zigun astelehenean BERRIGARAKO erantzungailu automatikoan. Aurretik ere jaso ditugu Josek lagatakoaren mezu antzerakoak, izan ere bat baino gehiago kexatu zaizkigu hainbat motorek ateratzen dituzten zarata hotsez. Josek bere haserrea azaldu nahi du goizez zein gauzez entzun daitezkeen zaratekin eta Udaltzaingoari nolabaiteko neurriak hartzeko eskatu nahi dio. Motorretako beste kontu batzuk (matrikula plakekin egin berri den bezala) arautzen diren moduan, zaratarekin ere beste horrenbeste egitea eskatzen du Josek, kalean pasiatzen doala ez duelako zertan aguantatu beharrik horren desatseginak gertatzen zaizkion zaratak.

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Udaberri-udako kolekzio berriak

JAIETARAKO MODA eta
JANTZI BEREZIAK
ere baditugu

MARGA jantzidenda

San Pedro 20 943 76 05 37



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

adituen esanetan

Intsektuen arriskua

Udaberri atarian gaudenez, intsektuekin kontu handiz ibili beharra dago. Alde batetik urte sasoi honetan, pinuarrak edo prozesionaria deritzonak arriskua sor diezaieke gure txakurrei. Pinudietan egoten diren har hauek, otsailean tenperatura epeltzen hasten denean, arboletatik behera etortzen dira, beraien buruak lurperatzeko asmoz. Hortik tximeleta mota bat sortuko da gero. Baina pinuetatik jaitsi eta lurperatu bitarteko prozesu horretan, txakurrek har horiek miaz-

katu edo zapaltzeko arriskua daukate eta hortik arazoak etor daitezke. Kontaktuaren ondorioz, txakurrengan nekrosia (animaliaren ehunaren zati baten heriotza hain zuzen) eragin dezake horrek, harrek erredu-
rak probokatzen dituen azido mota bat dutelako. Ahoan zaurituz gero, txakurrek mingainaren zati bat ere galdu izan dute behin baino gehiagotan eta min handia jasaten dute. Ondo tratatzen ez bada, infekzioa eta kasu batzuetan mingain osoa galtzeko arriskua dago. Sintomei dagokienez, txakurrei muturra handitzen zaie eta, hazkurren ondorioz, lurraren kontra arrastatzen dute. Animaliak gosea galtzen du eta goibeldu egiten da.

Tratamenduari dagokionez, lehen esan bezala, lehenbailehen egin behar da, anti-in-



ROMAN LAZPIUR


Albaitaria

*"Txakurrek pinuarrak miazkatu edo zapaltzeko arriskua daukate urte sasoi honetan eta har horiek erredu-
rak eragiten dituen azido mota bat dute"*

flamatorioak, mindutako zonaren garbiketa eta antibiotikoen bitartez. Desinfekzioa eta zauria orbaintzeko hainbat produktu erabiltzen dira.

Bestalde, liztorrek eta erleek ere buruhauste bat baino gehiago ematen dute. Katuek eta txakurrek askotan hozka egiten diete eta, ondorioz, aho barruan eztenkadak jasaten dituzte (edo euli bat delako ustean ikutzen dituztenean ere bai). Intsektuaren sentibilitatearen arabera, handik minutu edo ordu batzuetara animaliei

mindutako zona handitzen zaie eta zenbaitetan arnasa hartzeko arazoak ere izaten dituzte. Kasu honetan ere anti-inflamatorioak eta diuretikoak erabiltzea gomendatzen da.<



Intsektuekiko kontaktuagatik, txakurrei muturra handitzen zaie askotan.

bergarako errotrak



BOLINTXO

Alta 1936an eman zitzaion irina ehotzeko errota publiko gisa Timoteo Aranzabal Arazcienagaren izenean. 1962tik 1963ra Bonifazio Aranzabal Laskurain izango da titularra eta urte horretan utziko zion errota publiko izateari.

Bonifazio Aranzabal izan zen azken errotraria, 1927an jaioa.

Angiozar erreka urak erabiltzen zituen, eta erreka ezkerreko aldean zegoen. Bi harriak burdinneko turtukien eraginez mugitzen ziren.

Kokapena: Angiozarko elizaren barrenean, Bergarara bidean, Errotabarritik gertu.



ERROTEA

Gaur egun baserri batek dauka izen hori. Gaur eguneko jabeek entzuna zeukaten aurretik eman zitzaion erabilera.

Diotenez, baserri parean zentral elektrikoa egon omen zen aurretik, eta honek zutiko gurpil handi batzuk erabiltzen zituen mugitzeko, dena egurrezkoa.

Eskuinaldetik zihoan Angiozar erreka urekin ibiltzen zen.

Kokapena: Angiozar auzoan, Bolintxotik behera, 500 bat metrora.

Antxon Agirre Sorondo



Mariskada ederra

Amaia Iparragirre eta Miren Iraeta izan ziren **Bergarara Plataformak**, otsailaren 19an Jose Mari Etxanizen alde egindako zozketan argazkiko saski erakargarria etxera eramán zutenak. **791** izan zen zerbaki saritua eta bi zortedun hauei egokitu zitzairen.

Athletic, gorri ta zuriak...

Zein ondo pasatzen duten **Peña Athletic**-ekoek. Bihotzeko futbol taldeak joan zen igandean etxean jokatzén zuela eta hara joan ziren peñako 60 kide. Goizean goiz autobusean sartu eta **Ibaigenera** jo zuten bertan Athletic-ek dituen trofeo guztiak ikustera. Ondoren Deustun bapoz bazkaldu eta futbol zelaira abiatu ziren. Malagaren aurkako partida hobeá izan zitekeen, baina beno, binako berdinketarekin konformatu behar.



Ardoa dastatzen



Argiñano jatetxeko somelier-arekin ardo-dastaketa Anola egin ikasteko oinarritzko azalpenak jaso zituzten joan zen astelehenean **Gure Ametsa** elkarteán bildutako 25 bat lagunek. **Diego Sotelo** Argiñano jatetxe famatuko somelier-aren argibideak honakoak izan ziren: dekantazioa zer den eta ardoaren kolorea, usaina eta gustua zela aztertu. Asteleheneko arrakasta ikusita, **Gure Ametsa**koek gaian sakontzeko ikastaro luzeago bat antolatzea aztertzen dibardute.

4.000 kilometrotik gora oinez

Jose Manuel Jimenez 51 urteko asturiar erromesa bisitari izan genuen astelehenean. Lanbidez meatzaria izan zen 30 urtez Lacamochan, Gijonetik gertu, eta lau egunéz meategian entzerratuta izan zen duela urte eta erdi. Handik gutxira, bere emaztea, bi alabak eta gurasoak istripu batean hil zitzaizkion, Madriletik zetozela. Orduan **Erromatik Santiagora** bitarteko ibilbidea oinez egiteari ekin zion eta handik Donostiara eta Eibarreraino etorri da, bere emaztearen jaioterrian, Eibarren, Arrateko Santutegian bere ibilbideari amaiera emanez. Guztira, **4.200 kilometro** egin ditu oinez eta eskerrak eman nahi dizkie errepidean laguntza eskaini dioten guztiei. Orain, Arratera heldutakoan, atsedena hartu eta bere eguneroko bizimoduari egin beharko dio aurre Jose Manuelek. Zorte on!!



Gaur egun, Debagoieneko herri guztietan daude euskara elkarteak, Aramaion izan ezik, eta bertan ere sortzeko saiakeretan dabilta. Orain dela 10 urte inguru hasi ziren sortzen euskararen erabilera bultzatzea helburu duten elkarteok, eta berauek izan dira herri komunikabideak sortu eta bultzatu dituztenak ere. Horrela, Arrasateko AED elkarteak, telebista eta astekaria batzen dituen ARKO Arrasateko Komunikabideak sortu zuen orain dela hamar urte; Aretxabaletan, "Aretxagazeta" hamabostekaria eta "Atxabalta Telebista" dituzte; Eskoriatzan "Ze barri", Antzuolan "Kontuola", Elgetan "Goibekokale" eta Bergaran BERRIGARA astekaria, datorren abenduan hamargarren urteurrena ospatuko duena. Elkarteek gestionatzen dituzten komunikabideoz gain, udalek gestionatutakoak ere badira bailaran: Oñatin, irratia eta "Kontzejupetik" hilabetekaria; Eskoriatzan, "Telesko" telebista eta Arrasaten, "Arrasate irratia", hemendik gutxira ARKOren esku geratuko dena. Beraz, herri komunikabideen garapena oso positiboa izan da bailaran, eta gero eta arrakasta handiagoa dute, gainera.

DENOK ELKARTUTA INDARTSUAGO

Hala ere, Debagoiena osoa batuko luke ten komunikabide bateratuen beharra ikusi dute euskara elkarteek. Eneko Azkarate, orain arte BERRIGARAKO zuzendaria izan dena, Goiena egitasmoaren talde eragileko kideetako bat dugu. Talde hau joan zen irailetik lanean ari da. Enekoren esanetan, "aurrera begira, erronka berriei aurre egin beharra izango dute herrietako komunikabideek. Alde batetik, hurbileko informazioa gero eta indar handiagoa hartzen ari da, eta kompetentzia ere gero eta handiagoa da esparru honetan. Bestalde, teknologia berriak etengabe garatzen ari dira, eta kable bidezko telebista, esaterako, oso gertu daukagu geurean ere. Erronka hauei denei, bakarka baino, denok elkartuta hobeto aurre egin ahal izango diegula uste dugu, eta horregatik, euskara elkarte eta komunikabide guztiak elkartu, eta bailara osorako egitasmo indartsu bat bultzatu beharra ikusi dugu".

AURTEN, TELEBISTA ETA ASTEKARIA

Proiektu hau publiko egin zenetik telebistaz hitzegiten da, batez ere, hori bai-

Eskualdeko komunikabideak

Debagoieneko telebista aurki Bergaran

Debagoieneko euskara elkarte guztiak, eta horien artean Bergarako Jardun, bailara mailako komunikazio enpresa bat martxan jartzeko lanetan dabilta. Enpresa berriak era guztietako komunikazio arloak landu nahi lituzke etorkizunean: telebista, prentsa, irratia zein zerbitzu telematikoak. Edozein modutan, aurten bailarako telebista eta Goienkaria izeneko astekaria martxan jartzea aurreikusten da.

ta Bergarara ekarriko duen berrikuntzarik nabarmenena. Hala ere, telebistaz aparte, irratia, astekari bat eta aurrera begira egunkari bat garatzeko aukera ere aurreikusten da.

2000. urte honetarako, telebista bailara osora zabaldu eta oraingo aldizkariaren osagarri izango den astekari bat martxan jarri nahi da. Kasu batean ere ez dago oraindik data ziuurrik baina telebistaren kasuan baliteke eskualdera epe desberdinetan zabaltzea.

Astekariaren kasuan berriz, haren aurrekaria izango den produktu txiki batean lanean dabilta Goienakoak:


datorren astean bertan, hilaren 13an, hauteskundeak direla eta, Debagoieneko herri guztietako emaitzak jasoko dituen ale berezi bat kaleratuko du. Egunkari formatoko lau orritako ale bat izango da, eta astelehenean goizean goiz banatuko da herri guztietako kiosko, taberna, lantegi, ikastetxe eta beste hainbat tokitan. Guztira 20.000 ale izango dira bailaran banatuko direnak.

Beraz, hori izango da Goienak kaleratuko duen lehen produktua. Hala ere, epe laburrean astekari bat sortzea da helburua, "Goienkaria" izena hartuko duena. Gaur egun astekariak dau den herrietan, beraiekin batera banatuko litzateke "Goienkaria", eta bestetan, berriz, bakarrik. Eneko Azkaratek dioenez, "astekari hau gaur egun dau denen osagarri izatea da gure asmoa. Oraingo aldizkariak, agian, birrantolatu egin beharko dira, baina elkarren osagarri izan daitezkeela uste dugu".

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Hil honen 13an aterako da "Goienkaria" astekaria izango denaren ale berezi bat, hauteskundeetako bailarako emaitzekin.





GoitB: ESKUALDEKO TELEBISTA

Gaur egun, hiru telebista daude bailaran: "Arrasate Telebista" (ATB), "Atxabalta Telebista", eta "Telesko". Lehenengo biak Arrasate eta Aretxabaletako euskara elkarteak dira eta euskaraz egiten dira; hirugarrena, berriz, Eskoriatzako Udalak gestionatzen du eta honetan euskara eta gaztelera erabiltzen dira. Hiruretan ATB da instalazio eta ekipamendu aldetik ondoen hornituta dagoena eta, hasiera honetan, bertako instalakuntzak eta materiala erabiltzeko GoitB telebista berriak.

Arrasaten izango du, bada, emisio zentru nagusia. Baina horretaz gain, Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan ordezkartzak jarriko dira. "Aretxabaletako ordezkartzak, Aretxabaletako berriez gain, Eskoriatza eta Gatzagakoak ere landuko ditu. Bergarako kasuan ere antzeko zerbaite izango da, Bergara, Antzuola eta Elgetako albisteak bideratuko baitira bertatik. Aramaio, aldiz, Arrasatekin lotuta egongo da. Edozein modutan, herri guztietan bertako berriemaileak izatea da Goienako asmoa" diosku Eneko Azkaratek.

Bergarari dagokionez, hemendik gutxira, Irizar Jauregira joango da BERRIGARAKO erredakzioa, eta Bergarako ordezkartzaren platoa ere bertan kokatuko litzateke. Bertako aurkezleek zuzenean emago dituzte Bergara, Antzuola eta Elgetako albisteak. Bestalde, lau ordezkartzetako erredakzioak lotuta egongo lirateke eta herri guztietako kazetari, publizitate arduradun eta gai-

nontzeko langileek etengabeko harremanean jardun ahal izango dute. Eneko Azkarateren esanetan, "printzipioz, eta telebistari dagokionez, gaur egungo ATBren programazioan oinarrituko da GoitBrena, baina beti ere, bailarara begira moldatua eta bailara guztirako eskaintzarekin". Etorkizunean, programazioa berriztu egingo da.

HASIERAKO BILERAK, BERGARAN

Iazko uztailan eman ziren lehendabiziko pausuak, eta Bergaran elkartu ziren Jardun eta AED-Arko egitasmo honetaz hitz egiteko. Ondoren, bailarako gainontzeko euskara elkarteekin harremanetan jarri, eta egitasmoaren nondik norakoak azaldu ostean, Goiena izango denaren oinarritzko txosten bat egin eta sinatu zuten Debagune (Debagoineko euskara elkartearen elkargoa) osatzen duten elkarte guztiek, iazko abenduan. Gaur egun 8 euskara elkarte dau-

de gure bailaran: Jardun (Bergara), Idolaz (Antzuola), Axtroki (Eskoriatza), AED-Arko (Arrasate), Laixan (Oñati), Loramendi (Aretxabaleta) Goibeko (Elgeta) eta Pagedar (Gatzaga). Aramaion, berriz, talde bat bildu eta euskara elkarte bat sortzekotan dabilta, eta Goiena egitasmoan parte hartzeko asmoa erakutsi dute. Elkarte hauek guztiek oinarritzko txostena adostu ostean, dagoeneko egitasmoa udal guztietan aurkeztu da.

Bestalde, une honetan euskara elkarteak komunikazio enpresa bera sortzeko prozesuan murgilduta dabilta, horretarako batzarrak egiten. Lehenengo Arrasateko Arkok egin zuen batzarrak, gero Jardunek, Elgetako Goibekok eta baita Oñatiko Laixan eta Eskoriatzako Axtroki elkarteek ere. Orain arte, batzar guztietan oso harrera ona izan du eta onartua izan da Goiena egitasmoa. Aretxabaleta, Antzuola, Gatzaga

Goiena bitariko kooperatiba Debagoieneko euskara elkarteek kudeatuko dute, eta beraiena izango da ordezkartzaren %51 gutxienez

GoitBk Arrasaten izango du emisio zentru nagusia, baina Bergaran ordezkartzak bat izango du bertako, Antzuolako eta Elgetako albisteak lantzeko



Laister Irizar Jauregira joango da BERRIGARAKO lantaldea, eta GoiTB eskualdeko telebistaren Bergarako ordezkartzaren platoa ere bertan kokatuko da.

eta Aramaioko euskara elkarteek datozen asteetan egingo dituzte batzarrak. Honen ildotik, zera esan digu Eneko Azkaratek: "proiektu hau ez da abentura bat, ondo aztertu eta pentsaturiko egitasmo bat baizik. Kontutan hartu gaur egun herri komunikabide ugari ditugula bailaran, eta ez garela ezerezetik hasten, badugu nahikoa esperientzia. Bestetik, 2.500 bazkide ingururen babilbesa eta onarpena ere hor daukagu".

EGITURA JURIDIKOA ETA FINANTZIAZIOA

Enpresa egiturari dagokionez, bitariko kooperatiba edo kooperatiba mistoa egitea erabaki dute Goienaren bultzatzaileek, enpresa eredu horrek bazkide mota eta diru ekarpen mota ezberdinak hartzeko posibilitatea ematen omen duelako.


Bailarako euskara elkarteak izango dira kooperatibako bazkide nagusiak, ordezkartzaren %51ko gutxieneko batekin. Elkarteaz aparte, bazkide laguntzaileak ere izango ditu kooperatibak. Honela, udalei, bestelako erakunde publiko zein pribatuei eta bertako langileei bazkide izateko aukera eskainiko zaie.

Udalei dagokionez, bailarako udalek, orohar, begi onez ikusi omen dute proiektua eta hemendik lasterrera erantzun ofizialak jasotzea eta dagozkien hitzarmenak sinatzen hasia espero dute. Bergarakoari dagokionez, aste honetan bertan onartu berri diren aurrekontuetan, egitasmorako partidak jasotzen dira, nahiz eta Udalak proiektua sakanago aztertzeke asmoa azaldu duen. Honen inguruan aipagarria da EAJ-EA eta EHk adostutako gobernu progra-

man herriko telebista bultzatzea aurrerikusi zela.

Egitasmoaren finantzazioari dagokionez, proiektua abian jarri bitarteko kostua elkarteek bere hartu dute beren gain. Horrela, Jardunek 2.100.000 PTako hasierako ekarpena egingo du. Ekarpen hori egiteko, Jardunek joan zen hilaren 17an egindako ez-ohiko batzarrean, "bazkideei 2.000 PTako borondatezko aportazioa eskatzea erabaki zen, eta Berrigara etxean jasotzen dutenei ere, diru ekarpen bera egiteko aukera emango zaie, laguntza gisa" esan digu Jose Angel Mikeo Jardunek presidentetarako.

Egitasmoa bera finantziatzeko, berriaz, udalen, beste erakunde publiko zein pribatu batzuen eta Goienak berak sortutako dirubideez baliatu nahi dute. <



ATBko langile bergararrak

Orain dela hamar urte martxan jarri zenetik, hainbat bergarar aritu da lanean Arrasate Telebistan. Gaur egun ere bat baino gehiago ari da kazetari zein kamera lanetan. Eneko Azkarate (ezkerreko argazkian) hasi berri da asteari erreposoa egiten ostiralero, gaueko 21:30etan emititzen den "Astebete" saioan. Anartz Agirrek (erdian), "Zortziko txikian" izeneko bertso saioa aurkezten du hilean behin, eta Ainhoa Agirreazaldegik ere programa berean lan egiten du. Monika Belastegi (eskuman) BERRIGARAKO kazetaria, berriaz, ATBko asteburuetakoz kazetaria ere bada; albistegiatarako eta kirol saioetarako lan egiten du. Eta azkenik, Esti Salaberria osintxuarra ere kamara lanetan bekadun gisa dabil bertan. Horiek eta beste mordo bat izango dira GoiTB berrian ikusi ahal izango ditugun aurpegiak.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala



Kamagüey

ERROPA DENDA



orain irala kalean gaude!

Irala z/g. 943 76 73 08

Ariznoa taldeko bost gimnasta Gipuzkoako finalerako bidean

Maiatzaren 20an jokatu da finala Bergaran

Ariznoa gimnasia taldeko gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten zapatuan Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatuako Gipuzkoako Txapelketaren lehen fasean.


Alebinen kategorian 28 partaide izan ziren lehen eta Ariznoa taldekoen aldeetik, Irati Arteaga hirugarren postuan sailkatu zen, Maialen Legorburu bosgarrena izan genuen, Virginia Odriozola 9.a eta, azkenik, Sarai Gallego 18. postuan geratu zen. Zapatuko proba tresnarik gabekoa zen, esku hutsik, eta hurrengoan, sokarekin aritu beharko dira Ariznoako alebinak, datorren apirilaren 8an Zarautzen. Bi probetako emaitzak kontuan izanik, zortzi onenak maiatzaren 20an Bergaran jokatuko den Gipuzkoako finalerako sailkatuko dira.

Bestalde, infantilak ere ondo aritu ziren zapatuan

sokako ariketan Arrasaten. Izargi Vega izan genuen Ariznoa taldeko onena, bosgarren postuan. Uxue Arregi hamargarren geratu zen, Iraitz Gastiain 15., Maialen Toledo 18.a izan zen eta Naiara Canterok, berriz, 19. postua eskuratu zuen. Zarautzeko proban uztaiarekin finalerako txartela lortzen saiatu beharko dira infantilak.

FINALERAKO AUKERAK

Helena Herreros entzena-tzailearen arabera, "espero baino emaitza hobekak lortu genituen zapatuan, eta alebinetan pena bat izan zen Virginia Odriozolari kendu zioten puntu erdia, bestela laugarren geratzeko aukera zeukan eta. Dena den, alebinetan hiruk eta infantiletan taldeko beste bi lagunek finalerako sailkatzeko aukerak dituzte. Hori lortuko bagenu, pozik egongo ginatke egindako txapelketarekin". Bergaran izango den final horretan alebinen kon-



Argazkian, zapatuan Arrasateko aritutako Ariznoako alebin taldea.

juntoa ere izango da. Irati Arteagak, Virginia Odriozolak, Sarai Gallegok, Amaia Markiegik eta Sarai Ruizek osatzen dute taldea.

Bukatzeko, eta bergarak gimnastekin jarraituz, aipatu


astebukaera honetan Gasteizen jokatu den Katalunia eta Euskadi selekzioen arteko norgehiagokan Eibarko Ipurua taldean ari den Ane Miren Fernandezek hartuko duela parte.



Bergarak Antzuolari irabazi

Bergarako pilotariak Antzuolako taldeari nagusitu zitzaizkion asteazkenean, Deba Arroko Txapelketaren barruan, Udal Pilotalekuan. Jubeniletan, Julen Aranburu eta Joseba Herran bergararrek (argazkian) 22 eta 15 irabazi zieten Agirre eta Biteri antzuolarrei. Bestalde, seniorretan, Ander Muguruza eta Igor Gutierrezek 22

eta 14 menderatu zituzten Unai Idiakez eta Eduardo Samaniego. Samaniego bergararra Antzuolako taldearekin ari da. Seniorren arteko partidua epaile barik jokatu zen Idiakezek bere fitxa aurkeztu ez zuelako. Bartzordeak erabakia hartu beharko du baina ziuurren partidua galdutzat emango zaio Antzuolako taldeari.



Eibarren jokaturako partiduan Bergarak 1-0 galdu zuen irudian ikus daitekeen golaren erruz. GARA

Bergara-Eibar derbya zapatuan Mahoneroek azken hiru partidua galdu dituzte

Ligako azken hiru partidua jarraian galdu ondoren, Bergarako futbol talde nagusiak Eibarren bisita jasoko du bihar, zapatua, 16.45etatik aurrera Agorrosingo futbol zelaian. Zapatuan Biainen mutilek 2 eta Ieko emaitzarekin galdu zuten Donostian, UPV taldearen aurka, eta momentuan sailkapeneko 14. tokian ditugu, 27 punturekin. Bihar mahoneroek aurrean izango duten Eibar taldeak hasiera bikaina eman zion aurtengo denboraldiari, baina azken jardunaldietan puntu garrantzitsuak galdu

ditu eta Real Sociedad B liderrarekiko aldea handitzen joan da. Armeroak sailkapeneko laugarrenak ditugu, 44 punturekin, Real Sociedad B (58 puntu), Lemona (51) eta Arenas (48) taldeen atzetik.

Lehen itzulerako partiduan Eibarrek 1 eta 0eko emaitzarekin irabazi zion Bergarari Unben jokaturako partiduan. Orduan zerbait gehiago merezi izan zuten bergararrek eta biharko derbyan etxekoei behar-beharrezkoa zaie garaipena. Sailkapeneko hamalagarren tokian egon arren, ber-

gararrak 17. tokian dagoen Elgoibar taldearekin berdindurik daude puntuei dago kienez. Elgoibartarren atzetik, Sodupe eta Lagun Onak (27 punturekin biak) eta Tolosa (26) aurkitzen dira. Eibartarren aurka jokatu ondoren, Bergarak Real liderrari bisita egin beharko dio hurrengo jardunaldian eta etxeko hurrengo partidua Hernaniren aurkakoa izango da. Bergarako zuzendariak Klubaren Laguntzarako Eguna izendatuko du zurrerik martxoaren 18an Hernaniren kontra jokatu beharreko partidua.

Gorlako kotxe igoera

Joan zen domekan hasiera eman zitzaion Legazpin aurtengo Euskal Automobilismo Federazioaren proben egutegiari. Guztira 39 proba izango dira; Gorlako Kotxe Igoera ekainaren 10ean, Bergarako jaietan, jokatu da.

Zezeaga eta Goñi kanpora

Jose Mari Zezeagak eta Mikel Goñik galdu egin zuten domekan, Eibarko Astelena pilotalekuan, Unanue eta Rairen aurkako finalerdietako partiduan, 22 eta 19ko emaitzarekin. Beraz, uberarra ez da eskuz biakakoa finalean izango.

Aitor Oregik finala galdu

Aitor Oregi bergararrak eta Telleriak 2. mailako txapelketaren finala galdu zuten joan zen eguakitzean Oiongo pilotalekuan jokaturako partiduan, Esnal eta Mendia 22 eta 11ko emaitzarekin nagusitu zitzairen eta.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Eibar

Hirugarren maila

Zapatua. 16:45. Agorrosin

ESKUBALOIA

Bergara-Urola

Kadete neskak

Zapatua. 16:00. Kiroldegia

Bergara-Arrasate

Kadete mutilak

Zapatua. 17:15. Kiroldegia

ARETO FUTBOLA

Bergara-Aloña Mendi

Senior mutilak

Gaur, eguakitza, 22:30etan

Kiroldegian

Oier Tola bigarren Usurbilen

Bergara Shotokan

taldeko Oier Tola karatekak bigarren postua eskuratu zuen joan zen domekan Usurbilen jokaturako Euskal Ligaren Txapelketan. Infantil mailan 30 partaide izan ziren lehian eta kata modalitatean bigarren geratu zen Oier. Euskadiko Txapelketan parte hartzeko sailkatuta dago dagoeneko Oier Tola gatzetxo. Berarekin batera, Markel Larrañaga eta Unai Zabarte bergararrak ere aipaturako txapelketan izango dira. Oraindik ez da txapelketaren eguna zehaztu.



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

- 09:30: Amilotx-Urrutxurtu
- 10:30: Patxaran T.-Mongatxurra
- 11:30: Artusamak-Fac
- 12:30: Ion autoak-Shaktale

Patxaran Team
Artusamak
Shaktale
Fac

ZAPATUAN KANPOAN

- 12:30: Uve bikoitza-Buya
- 16:00: A ze flaxa-Vacalouras
- 17:00: Aterpe-Bar Canalejas
- 18:00: Patatus-Bayer
- 19:00: Aginaspi-Ortzi

Ion autoa
Aterpe
Patatus
Aginaspi
Bayer

DOMEKA BARRUAN

- 09:30: Txipiron-Komando piperrak
- 10:30: Moskis-Ari-Ari
- 11:30: Guadalest-Errotagain
- 12:30: Agirrebeña-Tom Cat
- 16:00: Siri Miri Eri- Etengabe
- 17:00: Pagomendi-Azpeitxi
- 18:00: Soropotroak-Torrekua
- 19:00: Amuskibar-Bildubarek
- 20:00: La Juve-Pinturas Bergara

Ari-Ari
Errotagain
Agirrebeña
Guadales
Pagomendi
Etengabe
Etengabe
La Juve
Bildubarek

EMAITZAK

A MULTZOA

Azpeitxi-jatetxea-Molko)lotov	0-3
Irubide-jatetxea-Moskis	6-2
La Juve-Pagomendi	1-2
Ari Ari-Pinturas Bergara	11-1

B MULTZOA

Bildubarek Opel Lam-Patxaran Team	3-0
Patatus-Amuskibar	3-6
Tom Cat Argandolas-Amilotx	3-0

C MULTZOA

Buya-Soropotroak	6-2
A Ze Flaxa-Shaktale	2-8
Ion Autoak-Agiñazpi	3-0
Ortzi-Uve Bikoitza	7-1

D MULTZOA

Aterpe-Ufala	5-6
Bar Canalejas-Txipiron	3-3
Errotagain-Artusamak	8-4

GORA ETA BEHERA



Shaktale, Ortzi, Ari Ari

C multzoan Shaktalek 8-2 irabazi zion A Ze Flaxa liderrari eta Ortzik ere sendo jarraitzen du Uve Bikoitzari 7-1 irabaziz. A multzoan, Ari Ari 11-1 nagusitu zitzaion P. Bergarari.



Aukeztu ez ziren taldeak

Azpeitxi-jatetxea, Patxaran Team eta Agiñazpi taldeak ez ziren euren partiduetara aurkeztu eta, partidua galtzeaz gain, antolatzaileek 3 puntu kendu dizkio bakoitzari.

ARGI!

Play-offen atarian

Liga txapeladuna erabakitzeko multzo bakoitzeko lau onenak sailkatuko dira eta koparako, berriz, multzo bakoitzeko azken laurek elkarren arteko kanporaketa bat jokatu beharko dute lehenbizi. Sailkatutako zortzi taldeek gainontzeko 24 taldeekin batera jokatuko dute kopa.

SAILKAPENAK

A multzoa	P	J
1. Pagomendi	48	17
2. Irubide Jatetxea	32	17
3. Azpeitxi Jatetxea	30	17
4. Sirimiri Eri	24	16
5. Pinturas Bergara	22	17
6. Etengabe	18	16
7. Ari Ari	17	17
8. Moskis	13	17
9. Molko)lotov	13	17
10. La Juve	12	17

C multzoa	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	40	16
2. Ortzi	36	16
3. Shaktale	31	16
4. Uve Bikoitza	22	16
5. Ion Autoak	22	16
6. Buya	19	16
7. Vacalouras	14	16
8. Soropotroak	13	16
9. Agiñazpi	10	16
10. Torrekua	7	16

B multzoa	P	J
1. Bayer	39	16
2. Amuskibar	34	16
3. Mongatxurak	34	16
4. Urrutxurtu	26	16
5. Bildubarek Opel Lam	25	16
6. Patxaran Team	18	16
7. Amilotx	16	16
8. Tom Cat Argandolas	15	16
9. Agirrebeña Jatetxea	11	16
10. Patatus	1	16


D multzoa	P	J
1. Errotagain	44	16
2. Fac	35	16
3. Guadalest	34	16
4. Bar Canalejas	32	16
5. Artusamak	28	16
6. Xurruapak	19	15
7. Txipiron	17	16
8. Komando Piperrak	7	15
9. Ufala	4	17
10. Aterpe	2	16

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza
2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

mahoneroak



ARKAITZ ARANA
Bergarako jokalaria

Bi taldeon partetik partidu aspergarria izan zen zapatukoa. Ez zen ikusleentzako partidu ikusgarria izan, ezta gutxiagorik ere eta, zoritxarrez, ez genuen UPV-EHU taldearen kontra punturik eskuratzerik izan. Orain arte behintzat belar artifizialeko zelaia ez zaizkigu batere ondo etorri. Donostiarrak aurreratu ziren markagailuan baina penalti bati esker berdinketa lortu genuen partidua amaitzeko 20 minutu falta zirela eta zelaian jokalaria bat gehiagoz jokatzen ari ginenean, epaileak euren jokalaria bat kanporatu ondoren. Baina ez ginen jokoan nagusitu eta nahiz eta gol aukera batzuk izan (tartean nik ere aukera garbi bat izan nuen), berriak ere arriskua sortu ziguten eta garaipenaren gola egin zuten. Beharbada berdinketa justoagoa litzateke baina ez dut uste UPVkoek berdin pentsatuko dutenik.

Etzeko partiduak irabazi beharra daukagu, azkenaldian Agorrosinen ez gabil-tza oso fin eta. Ea Eibarri irabazten diogun...



Sailkapen orokorra:

- Josetxo Lizarralde . 9 puntu
- Oxel Apraiz. 8 puntu
- Etor Laskurain 7 puntu
- Jokin Mendiartz . . 7 puntu

Etzeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika lehen mailako jubenil futbol taldea

Garaipen eroso

BERGARA 4

AMARA BERRI 0

Bergara: Ibai Zabala, Andoni Arbulu (Manolo Ortiz, 35.min), Xabi Egidazu, Xabi Lete, Markel Lazpiur, Martin Zaitegi, Andoni Arrieta, Ion Alzola (Jose Mari Larrañaga, 65.min), Iñaki Mujika, Ignacio Dobao (Barry-John Olabarria, 70. min) eta Iban Unanue (Iraitz Larrañaga, 45. min).



Jubenil taldeak, liga amaitzeko 10 partidu falta direnean, lidergoari eusten dio. ZAITEGI

Nahiz eta partidu boro-bilibik jokatu ez, Bergarako jubenilek beste goleada bat lortu zuten zapatuan Donostiako Amara Berri taldearen aurka eta lidergoari eusten diote. Bergararrak sailkapeneko lehen tokian dira, 57 punturekin, eta hiru puntuko aldea ateratzen

diote bigarren postuan dagoen Eibartarrak taldeari. Martxoaren 26an mahoneroek eibartarren bisita jasoko dute eta liga erabakitze-ko partidua izan daiteke aipatutako hori. Gogoratu dezagun sailkapeneko liderra izango dela ohorezko mai-

lara igoko den bakarra eta horregatik Gorka Zelaia entrenatzaileak hemendik liga amaitu bitartean (10 partidu besterik ez dira geratzen) taldeak bere onena eman beharko duela diosku.

Esan bezala, mahoneroek ez zuten joku onik egin

zapatuan Agorrosinen bildutako zaleen aurrean, baina sailkapenaren behelkaldetan dagoen Amara Berri taldeak ez zien buruhauste gehiegirik eman etxekoei. Penalti jaurtiketa bati esker, Iñaki Mujikak partiduko lehenbiziko gola egin zuen 20. minutuan eta bigarren zatian gainontzeko hirurak etorri ziren. Atsedenaldiraren ondoren, Xabi Letek entsaiatutako kórner jaurtiketa bat sareetara buruz errematatu zuen eta Iñaki Mujika goleatzaileak beste bi gol egin zituen: 3-0koa, falta jaurtiketa baten bitartez, eta partiduko azken gola taldearen kontraeraso bat errematatzean. Esan behar da Bergararen jokoak ikusmina sortu duela hainbat talde-taldek begiratzailengan eta, horrela, Ignacio Dobao Realarekin proba bat egitera joteko zen atzo, osteguna. Gasteizko Aurrerak eta Athleticek ere Dobao fitxatzeko interesa azaldu dute.

Liderra izateaz gain, Bergara gol gehien egin duen taldea dugu (105 gol). Zapatuan, Zumarragan, Urolaren aurka jokatuko du Bergarak.

NORA MADARIAGA / Eskubaloi atezaina

“Erreflejuak eta mugikortasuna behar dira”

Nora Madariaga (18 urte) jubenil nesken eskubaloi taldeko jokalaria ligan gol gutxien jaso zuen atezaina izan genuen. Ligan bigarrenak geratu ondoren, bergarar taldea Federazio Txapelketan ari da orain.

G. Zein izan da gol gutxien jaso zeko sekretua?

E. Ez da nire gauza bakarrik izan, talde osoari eman behar zaio meritua. Defenditzeko orduan oso ondo ibili gara. Ez dago beste sekreturik.

G. Taldeko portera bakarra izatea ona ala txarra da?

E. Batzuetan nahiago nuke laguntza izatea, partidu guztiak oso-osorik jokatzea nahiko ne-

kagarria delako. Konpetentzia ona dela uste dut. Taldearen onerako ere bada, azken batean ni txartelagatik kanporatzen banaute, jokalaria batek hartu behar duelako atezainaren ardura. Aurten Ainhoa Unamunok ordezkatu behar izan ninduen behin eta ondo egin zuen.

G. Zeintzuk izan behar dira eskubaloi portera baten ezaugarriak?

E. Erreflejuak eta mugikortasuna izatea ezinbestekoa da. Entrenamenduetan batez ere jaurtiketak zela gelditu lan-tzen dugu.

G. Penaltiak geratzeko orduan, zer moduz?

E. Denboraldi hasieran hobeto ibili nin-

tzen orain baino. Penaltiek in batera, piboteen jaurtiketak ere oso arrakatsuak dira.

G. Aurten Bera-Bera taldeari ezin izan diozue irabazi.

E. Ligan bi partiduak galdu genituen beraien kontra eta kopan ere

lehenbizikoa irabazi ziguten Bergaran. Ea bueltan sorpresa ematen diegun...



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Zubieta. Deitu 943 76 12 61 telefonora.

Antzuola. 943 61 29 17/ 63 52 63 (Rake).

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Pisu txiki bat erosiko nuke (igogailuduna derri gorrez). 943 76 12 61.

Etxea erosiko nuke Benidormen; aukeran, 3 logeladuna eta itsaso ondoan. 943 76 24 54.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torrevejian, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua konpartituko nuke. Deitu 667 52 48 98 telefonora (Andres).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

ESKAINZAK

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatuetan (baserri lanak...). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. Deitu 943 76 23 41 telefonora.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.

Klinika laguntzaileak gaixoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbitak egiteko gertu. 943 76 38 73.

Neska lanerako gertu. 943 76 00 90.

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin. 943 76 64 00.

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi. Deitu 943 76 47 16 telefonora.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406

K. Eleizalde. 943 76 36 34.

Garajea salgai Bolun.

Deitu 943 76 19 69 telefonora.

Garajea salgai San Lorentzon. 943 76 18 01.

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. Deitu 943 76 72 17 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke. Deitu 943 76 23 68 telefonora (Maite).

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Aranerrek. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18 m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokon. 943 76 11 13.



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32



IRLANDA

11-18 urteko gazteentzat
IKASTALDIAK

Ingelesa eta kirola
Konfidantza osoko familietan
Irlanda kostaldean uztailean
Galway hirian
INFORMAZIOA
943 77 06 83

Neska goizez lan egiteko gertu. 943 76 57 81.

ESKAERAK

Pertsona bat behar da goizero 2 orduz umea zaintzeko. 943 76 14 54.

Neska behar da etxeko lanak eta umeak zaintzeko. 943 76 01 57.

Esperientziadun neska behar da haurra zaintzeko. 943 76 44 10.

Neska etxeko lanak arratsalde orduka egiteko. 943 76 13 53.

Denda orduetan umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

9-13 urtekoei mate, ingeles... klaseak ematen dizkiet. 943 76 33 68 (Maite).

Kitarra, soinua eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

UBIko matematika kla-

seak hartuko nituzke. 943 76 33 23.

Pertsona bat behar da 11 urteko mutiko bati partikularrak emateko. 943 76 46 49.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Citroën AX 1.4. SS-AB.200.000 PTA. 630 750 099

VW Golf TDI 90. 3 urte. Egoera ona. 609 401 918

Iveco Pegaso furgoneta-kamioia (SS-AP). Garraiatarako txartel nazionalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM). 943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V). 943 76 37 74.

Puch motorra. 30.000 pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT. 943 76 00 12 (gauzez).

Opel Kadett GSI 16V. Egoera ona. 943 79 75 11 / 98 08 (Mikel).

Kadett 1.4. 630 750 099.

Renault 21 (SS-Z). 943 76 26 92a.

Kawasaki Vulcan motorra (500 cc.). 617 76 67 60 / 943 76 27 00.

7. ANIMALIAK

SALDU

Txahalak eta bildotsak izozkailuan sartzeko; labeldunak; natural hazita. 689 541 861.

Setter bat galdu dut Goiko Estaziño inguruan. Zuria, marroia eta beltza. 943 76 47 82. 607 456 714 (Rafa).

8. DENETARIK

SALDU

Borsini akordeoi kromatikoa. 943 76 38 35 (gauzez).

Hapro solariuma. Egoera onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda. Egoera eta prezio ona. 943 76 59 56.

Bateria salgai. Merke. 943 76 50 77 (Manu).

Aulkiak eta mahaia. 943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta sei aulki. 943 76 34 48.

EROSI

Diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. 943 52 65 77.

LPak erosten ditut. Deitu 943 79 76 90 telefonora.

Terrenoa erosiko nuke Bergara inguruan ura eramateko aukerarekin. 943 76 32 14 (18:30etik aurrera).

EMAN

1-7 urte bitarteko umeendako erropa eta bainera, konketa eta komuna opari. 943 76 44 34.

HARTU


Caritasek sukaldarako armairuak behar ditu. Deitu 943 76 11 98 telefonora.

GALDU

Euritarako txanoa galdu dut. 943 76 46 90.

GT Palomar bizikleta lapurtu didate. 943 76 11 81 (Jon).

Kartera, 3 argazki, Travel Club eta diruarekin. 943 76 53 71 (Ana)



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 26895/2

KOMERTZIALA
Bilbo. 27396/2

PROGRAMAZIO LAGUNTZAILEA
Bilbo. 27618/2

KABLEATZAILEAK, 2
Gasteiz. 27682/4

KABLEATZAILEA
Donostia. 27683/5

GAITU GABEKO PEOIA
Bilbo. 27707/4

TABERNARIA
Portugalete. 27943/2

APAREJADOREA
Eskumaldea. 28142/4

AUTOMOBIL MEKANIKOA
Bilbo. 28508/2

OBRA BURUA
Bilbo. 28900/1

SOLDATZAILE APRENDIZA
Arabar lautada. 28644/3

ITURGINA
Debabarrena. 28675/5

PEOI ENKOFRADOREA
Urola erdia. 29111/3

EKIPO INFORMATIKOEN TEKNIKARIA
Arrasate. 28841/3

KOMERTZIAL AUTONOMMOA
Ibaizabal. 28784/1

PEOIAK, 2
Debagoiena. 28715/2

ITURGINA
Debabarrena. 28675/5

HARRERAGILEA
Debabarrena. 28672/4

ENPRESA-MEDIKUA
Markina-Ondarroa. 28524/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



Etxebizitza berriak Antzuola erdi-erdian

Korosti inmobiliaria: Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

- Laster hasiko gara eraikitzen.
- Leku ezin hobean.
- Punta-puntako materialekin eraikiak

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Tabernarako ZERBITZARIA
behar da

943 76 59 19

Asteburuetarako SUKALDARI-LAGUNTZAILEA

behar da
Antzuolan

943 78 70 68

Baserriko lantresna eta produktuen azoka bihar Osintxun Santu Martirixen Egunean

Lantresna zein produktuak auzoko baserrietatik jasotakoak dira


Goiz osoan zehar egongo da azoka. Bertako baserriek utzitako lanabesak eta lurrrak emanikoak ikusi ahal izango dira. Ekitaldi hauek Santu Martirixen Eguna berreskuratzeko asmoz antolatuta dira.

Santu Martirixen Eguna ospatuko da Osintxun bihar. Orain urte batzuk Santu Martirixen eguna jai eguna bazen osintxuarrentzat, badira urte batzuk berau ospatzeko aparte-ko ekitaldirik antolatzen ez zena. Gauzak honela, Txurrumilo, Osintxuko Herri Batzordeko kultur komisiok, Santu Martirixen eguna berreskuratzeko pentsatu du.

Berreskuratze nahi honetan antolatutako ekitaldien artean, bada aipamen berezia merezi duten bi; Osintxu bertako baserrietatik lortutako antzinako lanabesei buruzko erakusketa bata, eta bertako produktuz osatutako azoka bestea.

BASERRIKO ERREMINTAK

Erakusketarako lortutako 200dik gora tresnak, Osintxu bertako 17 baserri-koak dira. Pilotalekuan izango da erakusketa eta zortzi familiatan banatuko dira tresnak: haria lantzeko tresnak, animaliendako tresneria, lurra lantzekoak, bedarretarakoak, sukaldeko gauzak, neurtzeko tresnak, tramankulu



Argazkian "lixiba kupela", sasoi bateko garbigailua.

handiak eta egurretarako tresnak.

Horrez gain, tresna bakoitzak jatorrizko baserriaren izena, lanabesaren izena eta erabilerari buruzko txarteltxu bat eramango du.

BERTAKO PRODUKTUEN AZOKA

Baserriko produktuek ere izango dute euren txokoa Santu Martirixen Egunean. Plazan hamar postu egokituko dira eta beste hainbeste baserri-koak lurra

emaniko produktuak ikusi ahal izango dira Osintxun bihar. Horrez gain, gazta, ogia eta gozogintzako produktuak ere egongo dira eta baita Osintxu bertako hiru artisauen lanak ere, Eusebio Aperribairen aukientzako ipurdiak, Milagros Osororen artilezko gal-tzak eta Javier Astigarragaren egur tailak. Paula Alberdi, belarretan aditua ere azokan izango da sendabelarrak erakutsi eta hauen inguruko informazioa eskainiz.

Lanabes erakusketan zein azoka, goizeko 10:00etan hasi eta 14:30ak bitartean luzatuko dira.

Honez guztiaz gain, izango da besterik ere Santu Martirixen Egunean. Goizean zehar, taberna jarriko da plazan eta odoloste eta txorizo taloez gain, kupeleko sagardoa, ardoa eta txakolina izango da. Jardun Trikiti taldea ere hantxe ibiliko da giroa alaitzen eta 12:30ean Moises Aspiazu dantza taldekoek dantza saioa eskainiko dute.

Arratsaldean, mus txapelketa jokatuko da Aitzpe elkartean eta 17:30ean umeendako txokolatada egongo da pilotalekuan. Honekin guztiarekin eta eguna ondo bukatzeko, bertso afaria antolatu du Txurrumiloko kultur komisiok. Bertso afaria Txuringon izango da eta Xabier Zeberio eta Jesus Mari Irazu bertsolariek hartuko dute parte.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

"Deba ibarreko euskertia" liburuaren aurkezpena 24an

Koldo Zuazok, "Deba ibarreko euskertia" liburuaren aurkeztuko du martxoaren 24an. Aurkezpena Udaletxeko pleno aretoan izango da arratsaldeko 19:00etan.

Koldo Zuazo Eibarko irakasle eta idazleak, Deba ibarreko euskara aztertu du liburu honetan, eta bailarako udal guztien laguntza jaso du argitaratzeko.

Liburuak hiru atal ditu: lehenengoan, bailarako euskalkien ezaugarriak aztertzen ditu Zuazok, bigarrenan, bere ondorio propioak ateratzen ditu eta azkenengoan euskalkien etorkizunaz mintzo zaigu.

Deba ibarrean, 70.000 euskal hiztunetatik 60.000 inguruk hitzegiten dute bertako euskalkian. Zuazoren arabera, hiru euskara mota ditugu Deba ibarrean: Debagoienekoa, Debaerdikoa eta Debabarrenekoa. Gipuzkoa, Araba eta



Koldo Zuazo.

Bizkaiko euskararen eragina nabaria da, gainera.

Liburuaren abenduan argitaratu zen eta egileak aurkezpenak bailarako herri guztietan egiteko asmoa du. Dagoeneko Elgeta eta Eskoriatzan aurkeztu du. Bergaran, aipatu bezala, martxoaren 24an izango da.

salduenak otsaila

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. OSTIRALAK
Jon Arretxe. Elkarlanean
2. BARANDIARAN
Jon eta Jesus Aizpurua. Elkarlanean
3. ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION
Lurdes Oñederra. Erein
4. HAU DA ENE ONDASUN GUZIA
Joseba Sarrionandia. Txalaparta
5. PASAIA BLUES
Harkaitz Cano. Susa

GAZTELERAZ

1. EL ULTIMO JUDIO
Noah Gordon. Ediciones B
2. EL AMANTE LESBIANO
Jose Luis Sampedro. Ediciones Arete
3. PERDIDA EN SU MEMORIA
Mary Higgins Clark. Plaza y Janes
4. EL NEGOCIO DE LA LIBERTAD
Cacho. Foca
5. EL MITO MONDRAGON
S. Kasmir. Txalaparta

Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

bergara ezagutzen lehiaketa

Petu-Petuan eta Misfits bigarren fasera

Gero eta gutxiago falta da bigarren faserako. Joan zen asteko norgehiagokan, Misfits eta Asmaizu taldeak aritu ziren. Lehenengoak 278 puntu lortu zituen eta bigarrenak 260. Gauzak honela, eta Petu-Petuan eta Misfits taldeak dagoeneko sailkatuta, Hik galdeu eta Badakitz taldeen arteko gaurko norgehiagoka baino ez da gelditzen sailkatuko diren beste biak nortzuk diren jakiteko.

Joan zen ostiralean aurkezte lanetan Ane Miren Zabala eta Eider Aranzabal aritu baziren, gaur Izaro Aperribaik ordeztuko du Eider.

SAILKAPEN OROKORRA:

PETU-PETUAN	322 puntu
MISFITS	278 puntu
ASMAIZU	260 puntu
JAKINTSUAK	215 puntu
AZKARRAK	189 puntu
JOTAPURTU	144 puntu

ASTE HONETAKO LEHIAKIDEAK:

HIK GALDEU eta **BADAKITX**

Kartzela zaharrean, gaur, 19:30ean

DISKOAK

1. GERNIKA ZUZENEAN
Mikel Laboa
2. 19 DIAS Y 500 NOCHES
Joaquin Sabina
3. SAND
Metallica
4. SUPERNATURAL
Santana
5. THE BATTLE OF LOS ANGELES
Rage Against the Machine
6. CALIFORNICATION
Red Hot Chilli Peppers
7. BALADAS 2000
Hainbat talde

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Gaztelera. 2. Poztasun. 3. Zezen zikiratu. Su. Boroa. 4. Opila. Ondo. 5. Kontinente bat. Non atzizkia. 6. Selenioa. Arnas ezak hil. Modua, tankera. 7. Momentu. Pluralean, zuhaitz-mota. 8. Nekagarria. Interjekzioa. 9. Unatu. Landare-mota. 10. Errepikatuz, fruitu tropikala. Labetik ogia ateratzeko palak.

Goitik behera

1. Ahalmenak. 2. Ondoko. 3. Afrikako estatua. Eguzki. 4. Titanioa. Hiru adierazteko aurrizkia. Duda partikula. 5. Areriotasun. 6. Zelai. emakume izena. Bostehun. 7. Zamarria. Muga. 8. Neukan. Bokal errepikatua. Haizen hori. 9. India. Zamalanak egiteko makina. 10. Lehenengoa. Sokaltoa, sokak bi bira egiten dituela egiten diren jauziak.

Soluzioa

10. A. Biraokak. 9. In. Garabla. 7. Astoa. Tala. 8. Nuen. Ee. Hi. 5. Etsaitasun. 6. Lau. Koro. D. 3. Zaire. Eki. 4. Ti. Tri. Ote. 1. Gaitasunak. 2. Aldameneko. *Gotik behera*
9. Akitu. Ihia. 10. Ko. Endatak. 7. Une. Arteak. 8. Nekosoa. Bo. 5. Amerika. An. 6. Se. Ito. Era. 3. Idi. Sute. B. 4. Tarta. Ongi. 1. Gaztelania. 2. Alaitasun. *Ezker eskuma*

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereziabar

Zein da 1948ko San Martin egunean inauguratu zuten elkarte honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauetaz erantzuten diezun!

1. Zein izango da Debagoieneko telebistaren izena?
A- Debagoiena News
B- GoiTB
C- Arrasate Telebista
2. Bergarako zein elkarte kaleratuko ditu herriko souvenirrak?
A- Kapirixok
B- Bedelkarrek
C- Gure Ametsak
3. Nondik ekarri dituzte Osintxuko lanabes erakusketarako tresnak?
A- Osintxuko baserrietatik
B- Ormaiztegiko Zumalakarregi museotik
C- Donostiako San Telmo museotik



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Edurne Martxena**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Edurneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Fraiskozuri plaza eta Bideberri pasealekua** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE

1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Rio
esne gaingabetua,
litroko brika
59 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Miren Azkaratek filologia erromanikoko ikasketak egin zittuan, eta orain Udaletxian lan eitten dau administrari bezela. Urte batzuetan Aritzetan jardun ondoren, gaur egun Orfeoian abesten dau. Urtero mozorrotzen da bere kuadrilliakin.

Zertaz mozorrotuko zarete aurten?

Kabaretera, kan-kan edo holako nahasketa arraro bat.

Noiztik mozorrotzen zarete?

Uff!...kuadrillakuak aspalditik, baiña ni oin dala lau urte hasi nintzan.

Zeozer falta jakue Bergarako aratustiei?

Lehen, martitzenian giro hobia egoten zan, jende gehixago mozorrotzen zan. Eta zapatuetan be gero eta jende gutxiago mozorrotzen da.

Zeuk eitten dituzu mozorruak?

Bai, bakoitzak beria eitten dou.

Lan asko emoten dau mozorrua preparatziak?

Bueno, aurten oso berandu ibilli gara eta azkenengo momentuan prisaka gabitz, baiña normalian ez.

Imajinaziñua biharko da, ezta?

Ez, kontua da ideia bat hartzia eta gogua eukitzia.

Juergazalia zara?

Ez naiz asko irtetzen, baiña irtetzen naizenian, bai.

Etkezalia zara?

Bai, oso.

Zure lanian, zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Gauza berrixak ikastia.

Eta gutxien?

Lan gehixenetan moduan, goizian goiz jaikitzia.

Miren Azkarate

Aukeria izatekotan, aldatuko ziñuke zure lanbidia?

Segun, soldata ona eta lan ona izanez gero...

Ze hobby daukazu?

Kantatzia, irakurtzia...

Ze musika mota gustatzen jatzu?

Batez be musika klasikua; baiña baita boleruak eta kantautoriak be.

Musika talde bat edo abeslari bat?

Silvio Rodrigex eta Javier Krahe asko gustatzen jat.

Ze liburu mota irakurtzen dozu?

Nobela historikuak gustatzen jat gehixen.

Zure bertute eta defektu bat?

Bertutia, pazientzia haundixa daukatela. Eta defektua, berriz, perfekzionistegixa naizela.

Zerekin eitten dozu barre?

Oin dala gutxi "Diga 33" liburuarekin sekulako barriak ein nittuan.

Èta negar?

Edozer gauzakin emozionatzen naiz eta negar eitten dot.

Erromantikia izango zara, ezta?

Bai, uste dot baietz.

Bestiengan gehixen apreziatzen dozuna?

Eskuzabaltasuna.



Artekalea 1. 943 76 72 00

Goizean...

- Gosaritarako ZUKUAK eta BOILOAK
- GOIZERDIAN PINTXOAK

eee

Gauean...

- MENUA 1.200 pezetan

eee

Eta astelehenetik eguenera...

- Plater KONBINATU BEREZIA 1.000 pezetan
- Oilaskoa 1.000 pezetan
- Ganbak plantxan

goizeko 8etatik aurrera zabalik!



Bilbora irteera, 1952

Ibai-Ondo elkarteak duela 48 urte antolatutako irteera bateko argazkia duzue goikoa. Esan bezala, garai bateko "Ibai-Ondo Sociedad Recreativa" delakoak urtero irteeraren bat antolatzen zuen eta urte hartan, irail aldera, Nerbioi arraun txapelketa ikustera joan ei ziren elkarteke kideak, soinujole eta guzti. Bazkaria Mundakako Casinoan egin zuten eta zelako menua izan zuten gogoan dute oraindik: paella, fritoak eta oilaskua jan omen zuten, sagardoz eta txanpanez lagunduta, eta euskaraz kantatzearren istiluak izan zituzten bertan ziren guardia zibil batzuekin. Bilbon estropadak ikusi eta gero eta, primerako eguna igaro ondoren, gaueko 10ak aldera iritsi ziren Bergarara. Argazkia irten aurretik aterata dago, Zubietako zubiaren ondoan.

Zutik: Benigno Zurutuza, Juan Moreno (txoferra), Nicolas Erostarbe, Pedro Plazaola, Agapito Larrañaga, Antonio Juaristi, Felix Eguren, Gotzon Barrenetxea-Arando, Hilario Urkizu, Pepe Perez, Nicolas Arzelus, Markos Kortabarria, Antonio Agirre, Patxi Arriola, Felipe Oregi, German Arregi.

Atzerago: Jesus Oregi, Julian Agirrebeña, Daniel Askasibar, Joaquin Inza, Luis Esnaola, Ignacio Madinabeitia, Jose Mari Arzelus, Joseba Jauregi eta Jesus Gantxegi.

Makurtuta: Xebe Labaien, Ignacio Iturbe, Tomas Eguren, Jose Maria Oregi, Adolfo Urkiola, Juan Azkarate (erdi zutik), Pedro Igartua, Asensio Lugarisaristi (neskatilaren ezker aldean), Tomas Iturbe eta Isidro Muguruza.

Argazkia: Nicolas Arzelus.



☎ 943 76 20 61



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

burujabetza bidean

hamaika arrazoi abstentziorako

duintasuna

Euskal hiritarrok ezin dugu espainiar botere gune horrekiko kolaboraziorik planteatu. Guk urteetan harturiko erabakiak errespetatu ez eta muzin egiten diete. Gure erabakiak errespetarazteko eta duintasunez aitzeko garaia iritsi delako:

abstentzia

demokrazia

Euskal Herria erabakitze subjektu izanik, ahalmen eskubide hau onartzen ez dutenei, aldarrikapen demokratiko baten bitartez Euskal Demokrasiaren aldeko baiezkorik borobilena bidali behar diegulako:

abstentzia

bakea

Gure herriaren kontra etengabeko gerra estrategia planifikatzen duten horiei, Euskal Herriaren bake eta askatasunaren oihua ozenki bidali behar diegulako:

abstentzia

askatasuna

Gure gizartea behin betiko era libre eta demokratikoan eraiki nahi dugulako, eta beraz, legislazio murriztaile eta zapaltzaileaz askatu eta umundu nahi dugulako:

abstentzia

heldutasuna

Erabakiak inongo tutoretzarik gabe, gure kabuz hartzeko eta herri honen etorkizun politikoa, ekonomikoa, kulturala, eta abar determinatzeko aski helduak garelako:

abstentzia

ardura politikoa

Gure herriaren, gure seme-alaben eta gure gizartearen etorkizuna beraien esku utzi ezin dugulako, soilik guri dagokigulako:

abstentzia

koherentzia

Irekitako prozesuan, inongo interferentziarik onartu ez eta Euskal Herriaren eraikuntza dugulako helburu:

abstentzia

ziurtasuna

Gure herriaren arazoak eta etorkizuna bost axola zaien politikari profesionalen esku uztea ezinezkoa delako:

abstentzia

gure ekonomia

Bere defentsak lehentasuna duelako, eta Madriletik desegite industrialia, gure sektore ekonomikoaren gainbehera eta dependentzia besterik bultzatzen ez dutelako:

abstentzia

gure kultura

Gure kultura ezabatu eta espainiar kultura inposatu nahi digutelako, gure hizkuntza errespetarazi nahi dugulako:

abstentzia

herri honen etorkizun askea

Espainiar demokrazia ez, baizik euskal demokrazia eraiki nahi dugulako, gure instituzioak eta hauteskundeak nahi ditugulako, ez arrotz zaigun herri batenak:

abstentzia

ez galdu aukera... zure esku dago. Aski da! demokrazia, askatasuna, subirautea eta bakea Euskal Herriarentzat nahi dugulako:
abstentzia